

Basoa

Bosque



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

26|27 Denboraldia
Temporada



Azaleko ilustrazioa: Ane Araujo (EHUren lankidetzat)



Deskargatu hemen informazio guztia formatu digitalean

Basoa

Bosque

26|27 Denboraldia
Temporada

Orkestra bat deskribatzeko modu ugari daude, baina badago definizio guztietan agertuko den hitz bat: multzoa. Elkarrekin jotzen duen, elkarrekin bizi den taldea... multzoa DEN taldea. Gauzez osatutako multzoen edo taldeen artean, badago bat bereziki ederra dena eta sortzaile asko inspiratu dituena: basoa. Gure ustez, orkestra bat baso bat ere bada. Eta gure kasuan, nola ez, BOS basoa da.

Baso horretara gonbidatu nahi zaitugu, baso anitza, bertakoa izan zaitezten eta bere parte senti zaitezten nahi dugu, baso bat, non, ezberdinak izanik, elkar aitortzen dugun eta elkarren osagarri garen. Basoa (basoren bat) eta bere zuhaitzak (zuhaitz batzuk) orkestra osatzen duten instrumentu guztien jatorrian ere badaude: hari-instrumentu guztiak, haize egurra, harpa, perkusioa, pianoa bera, edo zuzendariaren batuta.

Basoa irekia eta hostotsua da, eta bertara gonbidatzen zaitugu hamazazpi proposamenekin; guztietan, modu batera edo bestera, basoaren ideia presente dago eta hari eroale gisa jokatzen du. Adibidez, Wagnerren *Basoko murmurioak*, Beethovenen *Pastorala*, María Eugenia Luc-en *Oma* obraren estreinaldia, Berliozen Sinfonia Fantastikoa eta *Guernica* operaren berreskuratzea kontzerturako bertsioan (zuhaitz berezia eta basoaren hasiera).

Denboraldi oso bat eratu dugu izen berri batzuekin eta oso ezagunak ditugun beste batzuekin, eta gure asmoa izan da oreka bilatzea instrumentu solista ezberdinen eta erreperorioen artean. Obra batzuk estreinatuko ditugu, beste batzuk berreskuratu, eta dagokigun moduan, zerbitzu publikoa izaten saiatuko gara, baso irekia eta ibiltaria, non astez aste musikarik onena aurkituko duzun, maila gorenean interpretatuta, gure komunitate osoarentzat eta errespetuzko eta elkarbizitzako espazio batean. Hau da gure funtzioa, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak agintzen diguten konpromisoarekin eta zerbitzuarekin bat datorrena.

Leire Bilbaok, denboraldi honetan literaturatik gure kontzertuen ibilbidean lagunduko gaituen idazleak, ezin hobeto idatzi du: Esan beza basoak!

Izan gaitezen, bada, baso elkarrekin.

Iñigo Alberdi Amasorrain

Bilbao Orkestra Sinfonikoaren Zuzendari Nagusia

BOSquémonos

Leire Bilbao, idazlea

Esan beza basoak

Hitzen aurreko hitzen
bila nabil basoan.

Pago, izei,
haritz, urki,
lertxunen artean,
hostoen zainerian,
makalen adarren
haizearekiko murmurioan,
zozoaren hegadaren uberan.

Hitzen aurreko hitzen
soinuaren bila.

Harri epelaren gaineko
sugegorriaren marruskaduran,
elur-oreinaren lauhazkan,
gauak izutu animalia-
begiradaren distiran,
haren dardararen laztanean.

Hitzaren aurretik
soinua.

Ibai jaitsieren zaratotsa,
ur-jauzien burrunba,
burbuilen tilina.

Hitzaren aurretik
harriak pirritan,
mendia isil-hazten,
goroldioa zuhaitz eroriak
eta euria garoa janzen.

Hitzaren aurretik
belarraren taupada
gure oinen azpian,
hezurren gainean.

Egun batean oinez hasi ginen
zuhaitzak gara.

Gure aurretik
bezatu gintuen musika.

Hitzen bila basoan.
Enbor bat laztantzen dut,
eta entzun.



Basoaz gozatzeko gakoak

Juanjo Mena BOSera itzuliko da. Orkestrako titularra izan zen 1999tik 2008ra.

Azken urteotan bisitatu gaituzten **zuzendariak** izango dira gurean, hala nola Lorenza Borrani, Pablo González, Markus Stenz, Iván López-Reynoso, François López-Ferrer, Eduardo Strausser eta Unai Urrecho.

Izen berriak, ere izango ditugu, oso ezagunak, baina lehen aldiz bisitatuko gaituztenak: Françoise Leleux, Nicoló Umberto Foron eta Chloé van Soeterstéde.

Bakarlari bokalen presentzia garrantzitsua izango da. Vanessa Goikoetxea eta Xabier Anduaga, abeslari entzutetsuen zerrenda luze bateko buru dira: Sofía Esparza, Mikeldi Atxalandabaso, Carmen Artaza, Jeanne-Marie Lelievre, Marifé Nogales, Roberta Diamond, Emmanuel Franco, Fernando Latorre...

ZinemaBOS. E.T. filma, zuzeneko musikarekin, Erregeetako opari ederra.

“Joaquín Achúcarro” gure pianoak luxuzko maizterrak izango ditu denboraldi honetan: Claire Huangci, Curtis Phil Hsu eta Javier Perianes (zuzendari eta bakarlari gisa).

Guernica opera berreskuratuko dugu, Paul Vidal-ena, zeina bigarren karlistaldian Gernikan girotuta baitago. Asmo handiko proiektua da, eta abeslari handiek parte hartzen dute bertan. José Miguel Pérez Sierrak egingo ditu zuzendari lanak eta Pablo Viar arlo eszenikoaz arduratuko da.

Denboraldi honetan **bi abesbatza** izango ditugu lagun: Bilboko Koral Elkartea eta Leioa Kantika Korala.

Gaurko musika: Maria Eugenia Luc-en *Oma* estreinatuko dugu (BOSen enkargua) eta Eduardo Soutullo bilbotarraren *Das Eismeer* interpretatuko dugu.

Biolontxeloak presentzia bikoitza izango du bi bakarlari ospetsurekin: Asier Polo eta Nicolas Altstaedt. Bestalde, biolinean Francesca Dego, Alexandra Conunova eta gure kontzertino Giulia Brinckmeier ere izango ditugu bakarlari lanetan.

Leire Bilbao idazleak lagunduko digu denboraldiko kontzertuetarako testu proposamenekin.

Eneko Sagardoyk Beethovenen testu batzuei ahotsa jarriko die konpositorearen bigarren mendeurrena ospatzeko.

Fun Farre! BOSkiderekin egongo gara ospitale eta egoitzetan.

Kontzertuak Bizkaian zehar. Bizkaiko zenbait herri bisitatuko ditugu, hala nola Urduña, Getxo eta Gorniz.

Donostiako Musika Hamabostaldian eta Santanderreko Jaialdian **parte hartuko dugu**.

Gure ingurune musikalki osoarekin **lankidetzan jarraitzen dugu**: ABAO, Arriaga antzokia, Ura bere bidean, Musika Música...

Denboraldi **sinfonikoa**



HASTAPENeko ABONUA

«Joaquín Achúcarro» Pianoa **bbk** babestua



Kontzertu guztiak 19:30etan izango dira



Euskalduna Bilbao
Auditoriuma

Programazio hau alda liteke.
Baldintza orokorrak ikusteko www.bilbaorkestra.eus



01



© Rodrigo Levy

Basoko murmurioak

urriak 01 - 02

Richard Wagner
Siegfried, Waldweben

Richard Strauss
Vier letzte Lieder

Sergei Prokofiev
7. sinfonia do sostenitu minorrean Op. 131

Vanessa Goikoetxea, sopranoa
Eduardo Strausser, zuzendaria

Basoa denboraldia hasiko dugu Sigfridoren pausoei jarraitzen dien baso bizi bateko soinuekin, eta atzean geratzen ari den garai bateko lurrin nostalgikoarekin, Straussek bere *Azken lau liederretan* islatu zuena; amets hutsa Vanessa Goikoetxearen ahotsean. Agur esateko beste obra bat, 7. *sinfonia*; Prokofievek agur esaten digu soiltasunez eta irribarre zintzo batekin.

02



© Jean-Baptiste Millot

Natura abesten

urriak 08 - 09

Antonin Dvorak

Elezaharrak, hautaketa Op. 59

Johann Nepomuk Hummel

Sarrera, tema eta bariazioak oboerentzat Op. 102

Ludwig Van Beethoven

6. sinfonia Fa Maiorrea Op. 68 «Pastorala»

Françoise Leleux, oboea eta zuzendaria

Pastorala da Beethovenek bere naturarekiko sentitzen zuen maitasun neurrigabea hobekien irudikatzen duen obra. Sinfonia hori musikagileak Viena inguruko basoetan zehar igaro zituen ordu luzeetan inspiratuta dago, Dvorakek *Elezaharrak obran* jatorriko Bohemiaren aroma islatu zuen bezala. Hori guztia François Leleuxek orkestrarekin egiten duen debutean, solista eta zuzendari moduan.

03



© Michal Novak

Berriro elkartzea

urriak 15 - 16

Jesús Guridi

El Caserío, II. ekitaldiaren preludioa

Joaquín Rodrigo

Concierto in modo galante

Wolfgang Amadeus Mozart

40. sinfonia sol minorrea K. 550

Asier Polo, biolontxelo

Juanjo Mena, zuzendaria

Badaude orkestra baten nortasuna adierazten duten zuzendariak, eta zenbaitek garai oso bat markatzen dute. Juanjo Mena, taldeko titularra izan zena 1999tik 2008ra, multzo horretan dago. Maisuaren eta BOSen bideak berriro elkartu dira, eta elkarrekin bizi izandako guztia aitortu eta eskertzen dute. Berriro elkartuko dira eta horren testigu izango da etxe honetan oso maitatua den artista bat, Asier Polo biolontxelo-jotzailea.

04



© Mateusz Zahora

Arimaren sakontasunak

urriak 29 - 30

Wolfgang Amadeus Mozart

Le nozze di Figaro, obertura K. 492

24. kontzertua piano eta orkestrarako do minorrean K. 491

Sergei Rachmaninoff

Dantza sinfonikoak Op. 45

Claire Huangci, pianoa

Nicoló Umberto Forón, zuzendaria

Rachmaninoff piano-jole trebatua zen eta Mozarten musikaren sakontasuna zehatz eta mehatz esploratu zuen; beraz, oso litekeena da berarentzat naturala izatea emozionalki hain intentsuak diren bere *Dantza Sinfonikoak* eta *24. kontzertua do minorrean* obrak gau-ekitaldi berean jotzea. Eta horrela gozatuko ditugu, gure denboraldian aurkeztuko diren bi gazte talenturen eskutik.

05



© Marco Borggreve

Prokofiev eta Veronako maitaleak

azaroak 05 - 06

Sergei Prokofiev

Sinfonia kontzertantea biolontxelo eta orkestrarako Op. 125

Romeo and Juliet, suite

Nicolas Altstaedt, biolontxelo

Markus Stenz, zuzendaria

Shakespearren Veronako maitaleei buruzko istorioaren potentziak konpositore ugariaren arreta bereganatu du, baina beharbada inork ez du Prokofievek bere ballet ospetsuarekin eman zion bezainbesteko energiarekin eta dramatismoarekin islatu. Eta bere bizi bukaeran, Rostropovichekin izan zuen topaketak markatu zuen sinfonia kontzertanterako inspirazioa, Nicolas Altstaedet bikainak biolontxelo joz eskaintzen duguna.

06



© Olivia da Costa

Konpositoreak eta organo-joleak

abenduak 03 - 04

Wolfgang Amadeus Mozart

15. sonata organo eta orkestrarako Do Maiorrean K. 336

18. kontzertua piano eta orkestrarako Si bemol Maiorrean K. 456

César Franck

Pièce héroïque

Sinfonia re minorrean

Curtis Phil Hsu, pianoa

Mikel Ansola, organoa

Chloé van Soeterstède, zuzendaria

Mozartek eta Franckek jenio sortzaileak izatea partekatzeaz gain, biak ere organo-jole bikainak izan ziren. Euskaldunako organo handia prelude gisa entzungo dugu kontzertuaren bi ataletan, hau da, Mozarten *18. kontzertua piano* eta César Francken sinfonia monumentala eta organistikoa re minorrean (bere idazkeran) baino lehen.

07



© Borja Arrizurieta

Sonetoak

Gabonetako kontzertua

abenduak 17 - 18

Jeanne-Louise Farrenc

1. obertura mi minorrean Op. 23

Franz Liszt / Marco de Proserpis

3 Sonetti del Petrarca

Johannes Brahms

2. sinfonia Re Maiorrean Op. 73

Xabier Anduaga, tenorra

Markus Stenz, zuzendaria

Nazioarteko solista bat bere karrerako unerik gorenean, Xabier Anduaga tenorea izango da topaketa honen protagonista handia. Erromantizismoak argi-ilunez betetzen du programa interesgarri hau Farrencen, Liszten 3 *Sonetti del Petrarca*ekin (Marco de Proserpisen orkestrarako bertsoan) eta Brahmsen ezinbesteko bigarren sinfoniarekin.

08



© Marco Borggreve

Biondi + BOS

otsailak 04 - 05

Felix Mendelssohn

4. sinfonia La Maiorrea Op. 90 «Italiarra»

Wolfgang Amadeus Mozart

41. sinfonia Do Maiorrea K. 551 «Jupiter»

Fabio Biondi, zuzendaria

Bi sinfonia handi Biondirentzat

Fabio Biondi, Europa Galanteren buru gisa, azken 35 urteetan musika-interpretazioa gehien astindu dutenetako musikari bat izan da. Orkestraren aurrean aurkezten da bi maisulan erabatekoren bere bertsioa eskaintzeko. Mendelssohnen *Italiar* sinfonia arin eta dantzaria, eta *Jupiter* sinfonia zabal eta behin betikoa, bere amaiera zoragarriarekin.

09



© Benjamin Ealovega

Sinfonia Fantastikoa

otsailak 11 - 12

Jacques Ibert

Kontzertua flauta eta orkestrarako Op. 37

Hector Berlioz

Symphonie fantastique Op.14

Patricia Ruiz, flauta

Pablo González, zuzendaria

Berlioz jenioen taldean dago: gainerakoek berdin egiten duguna ezberdin egiten dute beraiek. Bere *Symphonie fantastique*arekin sinfoniaren generoa irauli zuen, eta, aldi berean, Harriet Smithson aktorearekiko sentitzen zuen maitasunaren, edo, hobe esanda, obsesioaren, konplize egin gintuen. Mende bat geroago, Ibert bere herrikideak flauta-joleei errepertorioko kontzertu maitatuenetako bat oparitu zion, Patricia Ruiz gure solistak interpretatuta.

10



© Davide Cerati

Shostakovichen Bosgarrena

otsailak 18 - 19

Mario Castelnuovo-Tedesco

2. kontzertua biolin eta orkestrarako Op. 66 «I Profeti»

Dmitri Shostakovich

5. sinfonia re minorrean Op. 47

Francesca Dego, biolina

François López Ferrer, zuzendaria

Castelnuovo-Tedesco italiar konpositorearen biolinerako bigarren kontzertua Jascha Heifetz biolinista handiarekin zuen laguntasunari esker sortu zen; azken horrek Toscaninirekin batera estreinatu zuen 1933an. Kasu horretan, konpositore italiarrak bere sustrai judutarren elementuak erakutsi nahi izan zituen; hain zuzen ere, sustrai horiengatik erbestera zuten. Aldi berean, Europako beste muturrean, Shostakovichek sobietar erregimenari sinfonia pozgarria oparitu zion, orkestrarako birtuosismo hutsa.

11



© Piera Mungiguerra

Stabat Mater

martxoak 11 - 12

Franz Joseph Haydn

56. sinfonia Do Maiorrean Hob. I:56

Giovanni Battista Pergolesi

Stabat Mater

Jeanne-Marie Lelievre, soprano

Roberta Diamond, mezzo soprano

Leioa Kantika Korala (Basilio Astúlez), zuzendaria

Lorenza Borrani, biolina eta zuzendaria

Lorenza Borrani koncertinoko atriletik zuzentzen du programa dotore hau, barrokoaren eta klasizismoaren artean, Pergolesitik Haydnerraino. *Stabat Mater* testuaren edertasunak konpositore ugari inspiratu ditu, eta bere semea galdu duen ama baten bakardadea, mina eta esperantza ere islatu dute. Disonantziaren eta kontsonantziaren, tentsioaren eta distentsioaren arteko jokoak azaltzen du proposamen hau, non Leioa Kantika Koralak, bi bakarlari interesgarriekin batera, bizia emango dioten Pergolesiren adierazkortasun perfektuari.

12



Pintura nordikoak

apirilak 08 - 09

Eduardo Soutullo

Das Eismeer

Felix Mendelssohn

Kontzertua biolin eta orkestrako mi minorrean Op.64

Jean Sibelius

2. sinfonia Re Maiorrean Op. 43

Alexandra Conunova, biolina

Iván López Reynoso, zuzendaria

Ohikoa da Sibeliusen musika bere jaioterria zen Finlandiako paisaia nordiko lainotsuekin lotzea, baina bere bigarren sinfoniaren kasuan, Italiako basoetan sortu zen inspirazioa; hilabete batzuk erretiroan egon zen bertan. Beste iparraldeko batek, Eduardo Soutullo, izoztutako itsasoak gogora ekartzen ditu bere azken obran, eta Mendelssohnek zoriontasunaren ideia puru eta abstraktura jo zuen erromantizismoko biolinerako lehen kontzertu handian.

13



Guernica



apirilak 15 - 16

Paul Vidal

Guernica, Drame Lyrique

Sofía Esparza, Nella

Carmen Artaza, Périco

Emmanuel Franco, Juan

Mikeldi Atxalandabaso, Mariano

Nathanäel Tavernier, Marco

Fernando Latorre, Miguel

Marifé Nogales, Abadesa

Aitor Garitano, mandazaina

Julen García, espioia

Jordi Martínez, alferrez

Mauro Docampo, espioia

Sociedad Coral de Bilbao

Pablo Viar, eszena

Alberto Sáez, repetidor

José Miguel Pérez Sierra, zuzendaria

Deskubrimendu bat: *Guernica*

Musika-ondarearen berreskurapen bat. Proiektu konplexua da eta abiapuntua Frantziako Liburutegi Nazionalako bazterreko txoko batetik partitura bat berreskuratzea izan zen. Ondoren, lehen mailako artista-taldea osatu zuten hain berezia den musika horri bizia eman ziezaioten. Opera frantsesa da, Parisen estreinatu zen 1895ean euskal gaitegiarekin (Gerra Karlistak) eta Gernika ekintza-espazio gisa hartuta, eta *Gernikako Arbola* aldiz, gai melodiko eta oinarritzko moduan. *Romeo eta Julieta* moduko bat, foru-udalerrian kokatzen dena Bigarren Gerra Karlistan zehar.

14



Oma

apirilak 29 - 30

Gustav Mahler

10. sinfonia Fa sostenitu Maiorrean, Adagio

María Eugenia Luc

Oma*

Sergei Rachmaninoff

2. kontzertua piano eta orkestrarako do minorrean Op. 18

* Erabateko estreinaldia – Estreno absoluto

[BOSen, SGAE Fundazioaren eta AEOS-en enkargua /
Obra por encargo de la BOS, Fundacion SGAE y la AEOS]

Boris Giltburg, pianoa

Eduardo Strausser, zuzendaria

Basoa denboraldi honetako hari eroalea izanik, *Omaren* estreinaldia denboraldiko une gorenetakoa da. María Eugenia Lucek idatzi du indarrez eta naturari egindako erreferentziaz beteta dagoen musika hau; baso baterako idatzitako musika da. Mahler sakon eta misterioitsu batek (gaueko baso baten modukoa) irekitzen du kontzertua, eta bigarren zatian pianorako eta orkestrarako beste idazkera erraldoi batekin amaitzen da (Rachmaninoff), Boris Giltburg pianoa jotzen dagoela.

15



© Lisa Mazzucco

Soilgune bat basoan

maiatzak 06 - 07

Ottorino Respighi

Antiche danze ed arie, Bergamasca

Mario Castelnuovo-Tedesco

Kontzertua gitarra eta orkestrarako Re Maiorrean Op. 99

Bedrich Smetana

Nire aberria, Moldava

Ottorino Respighi

I pini di Roma

Pablo Sainz-Villegas, gitarra

Unai Urrecho, zuzendaria

Respighi italiarraren musika argitsuak markoztatzen du kontzertu hau, bere *Bergamasca* dotore eta dekadentearen eta *I pini di Roma* distiratsu eta seduzitzailerearen artean. Hiri-basoa da eta baliagarria da betirako hiriaren erretratua eraikitzeko. Baso horretakoa da, adibidez, gitarra bat eraikitzeko erabiltzen den zura. Pablo Sainz Villegas zoragarriaren gitarrak emango dio bizitza Castelnuovo-Tedescoren musikari..

16



© Marco Borggreve

Beethoven 200

ekainak 03 - 04

Ludwig Van Beethoven

2. kontzertua piano eta orkestrarako Si bemol Maiorean Op. 19

3. kontzertua piano eta orkestrarako do minorrean Op. 37

4. kontzertua piano eta orkestrarako Sol Maiorean Op. 58

Eneko Sagardoy, aktorea

Javier Perianes, pianoa eta zuzendaria

Beethoven Javier Perianesen eskutik

Beethovenen pianorako bost kontzertu handiak XIX. mendeko pianorako literaturaren ezinbesteko *corpus* gisa inposatzen dira. Horiek zeharkatzea Beethovenen eskutik bere bizitza-periploan ibiltzea bezalakoa da: klasizismo dotoretik iraultza erromantikoraino. Javier Perianes bikainak erronka bati aurre egiten dio, hain zuzen ere, haustura hori guri erakustea, solista eta zuzendari gisa duen alderdi bietan.

17



© Piera Munguerra

Patuaren sinfonia

ekainak 10 - 11

Alfred Schnittke

1. concerto grosso bi biolin, cembalo eta harirako

Ludwig Van Beethoven

5. sinfonia do minorrean Op. 67

Giulia Lucrezia Brinckmeier, biolina

Lorenza Borrani, biolina eta zuzendaria

Beethoven ospatzen ari garen urte honetan, denboraldia itxiko dugu bere sinfonia ezagunenarekin, eta erronka izango da interpretatzeko ohiko modutik ahalik eta gehien aldentzea. Lorenza Borrani ezin hobea da errepertorioaren adarrak astintzeko eta fruitu berrituak jasotzeko. Schnittke ere klub horretakoa da, norbere garaiko begiradarekin zaharrari (kasu honetan, barrokoari) begiratzen diotenen artekoa.

Ganberako denboraldia

Gure ganberako denboraldiak ikusleen eta musikarien arteko neurketa intimoagoa eskaintzen du. Hitzordu hurbila, astelehenekoa, asteko musika hasierarik onena bezala balio duena. Proposamenak askotarikoak eta kalitatezkoak dira. Ez da faltako oinarrizko errepertorioa, Schumann, Brahms, Mozart, eta Beethoveni eskainitako programa bat bere bigarren menduenean; ezta proposamen berrienak ere, hala nola Gorka Hermosarenak, edo Stephan Loges baritonoak eta Antonio Oyarzábal pianistak eskainiko duten lied programa ederra, Ingalaterrako eta Alemaniako konpositore garrantzitsuei arreta eskainiz. Beste figura gonbidatu batzuk Claire Huangci pianista eta Pablo Sainz Villegas gitarrista izango dira.

Boseko musika taldeek eskeinitako saioak



Kontzertu guztiak 19:30etan izango dira



Euskalduna Bilbao
OB aretoa

Programazio hau alda liteke.
Baldintza orokorrak ikusteko www.bilbaorkestra.eus



French jolies

urriak 19

Ludwig Thuille

Seikotea piano eta haize boskoterako
Si bemo! Maiorrea Op. 6

Albert Roussel

Divertissement Op. 6

Francis Poulenc

Seikotea piano eta haize boskoterako

02



Souvenir de Florence

azaroak 16

Gorka Hermosa

Dwarves' tales

Amore

Anantango

Meditatio

Danzas de Iberia

Piotr Ilyich Tchaikovsky

Souvenir de Florence Op. 70

03



Bakarlari handiak errezitaldian:

Grandes solistas en recital:

Claire Huangci

abenduak 14

Frederic Chopin, Fanny Mendelssohn, Florence Price & George Gershwin

04



Hari laukotea eta piano erromantikoa

urtarrilak 11

Robert Schumann

Laukotea Mi bemol Maiorrean Op. 47

Johannes Brahms

1. laukotea sol minorrean Op. 25

05



Beethoven 200

otsailak 8

Boskotea piano eta haizetarako Mi bemol Maiorrea Op. 16
Seikotea 2 tronpa eta harirako Mi bemol Maiorrea Op. 81b

06



Dibertimendu bat Nannerlentsat

martxoak 1

José Elizondo
Danzas latinoamericanas

Johann Nepomuk Hummel
Laukotea klarinete eta harientzako Mi bemol
Maiorrea S. 78

Wolfgang Amadeus Mozart
Divertimento K. 251

07



Basoko ahotsak

apirilak 12

Jean Sibelius
Hari laukotea re minorrea Op. 56 «Voces intimae»

Antonin Dvorak
Altzifreak, B. 152



Bakarlari handiak errezitaldian

apirilak 26

«Meine Töne still und heiter»

Ingelez eta alemandar emakume konposagileen Liederrak

Stephan Loges, baritonoa
Antonio Oyarzabal, pianoa



Udaberria Parisen

maiatzak 10

Zehaztu gabeko egitaraua

Pablo Sainz-Villegas, gitarra



Udaberria Parisen

maiatzak 24

Bohuslav Martinu

La revue de cuisine, suite H. 161

Charles Koechlin

Udaberria, boskotea flauta, harpa, biolina, biola
eta biolontxeloarentzako Op. 156

Bohuslav Martinu

1. ganbera musika H. 376

Zinema
BOS



A STEVEN SPIELBERG FILM

E.T.

*THE EXTRA-TERRESTRIAL
IN CONCERT*

urtarrilak 7 enero

John Williamsen soinu-banda duen filmaren emanaldia, BOSek zuzenean interpretatua.
Proyección de la película con la banda sonora de John Williams interpretada en directo por la BOS.

Abonutik kanpo / Fuera de abono - Lekua / Lugar: Euskalduna Bilbao

E.T. The Extra-Terrestrial is a trademark and copyright of Universal Studios.
Licensed by Universal Studios. All Rights Reserved.

abonu motak

Denboraldi Sinfoniko osorako abonua (17 kontzertu)

Denboraldi osorako abonua aukera ematen du deskontu handia izateko (txartel solteekin alderatuta), BOSeK denboraldian eskaintzen dituen 17 kontzertu sinfonikoez gozatzeko.

Hastapen-abonua (6 kontzertu)

Egitarauak: 5, 6, 9, 11, 15, 17

Hastapeneko abonua aukera ematen du zaleek nahiz zaletu nahi dutenek gozatzeko moduko sei kontzertu ikusteko aukera izatea. Era askotako kontzertuak dira, baina berehalako gozamenarekin emateko baterako helburua dute, baita musika sinfonikoaren munduan sartzekoa ere.

Abonua Nahierara-6 (6 kontzertu)

Nahierako abonua aukera ematen du sei kontzertu hautatzeko abonua labur propioa prestatu nahi duten zaleei.

Abonua Nahierara-9 (9 kontzertu)

Nahierako abonamenduaren bidez, zaleek bederatzi kontzertu aukeratu ditzakete haien abonamendu labur propioa egiteko.

Ganberako Denboraldia abonua (10 kontzertu)

Ganbera denboraldirako abonua aukera ematen du deskontu handia izateko (txartel solteekin alderatuta), BOSeK denboraldian eskaintzen dituen 10 ganbera kontzertuez gozatzeko.

Abonuen prezioak

Denboraldi sinfonikoa

30 urtetik gorakoak	Kontzertuak	A+	A	B	B ^{hegala*}	C	C ^{hegala*}
Abonu Osoa	17	374 €	357 €	272 €	255 €	153 €	136 €
Hastapen-abonua	6	-	141 €	105 €	99 €	81 €	75 €
Abonua Nahierara-6	6	-	147 €	111 €	105 €	87 €	78 €
Abonua Nahierara-9	9	-	216 €	162 €	153 €	126 €	117 €

Abonu Gazteak (<30)	Kontzertuak	A+	A	B	B ^{hegala*}	C	C ^{hegala*}
Abonu Osoa	17	136 €	136 €	119 €	102 €	85 €	68 €
Hastapen-abonua	6	-	51 €	45 €	39 €	33 €	27 €
Abonua Nahierara-6	6	-	57 €	51 €	45 €	39 €	33 €
Abonua Nahierara-9	9	-	81 €	72 €	63 €	54 €	45 €

Ganberako denboraldia

	ABONUAK	
	30 urtetik gorakoak	Gazteak (30 urterarte)
Denboraldi sinfonikoan abonatuak	60 €	30 €
Denboraldi sinfonikoan abonatu gabeak	94 €	46 €

Sarreren prezioak

Denboraldi sinfonikoa

	A+	A	B	B ^{hegala*}	C	C ^{hegala*}
30 urtetik gorakoak	34 €	31 €	22 €	20 €	17 €	15 €
Gazteak (<30)**	11 €	11 €	9 €	8 €	7 €	6 €
Azken Ordua***	17 €	15,50 €	11 €	10 €	8,50 €	7,50 €
CrediBOS****	-	150 €	107 €	-	82 €	-

Ganberako denboraldia

	NORMAL	JÓVENES hasta 30 años
Abonados Temporada Sinfónica	9 €	6 €
No Abonados Temporada Sinfónica	12 €	7 €

* Eserleku hauen ikuspena murrizta da.

** Gazteentzako prezio bereziak txartel-leihatilako salmentan baino ez dira aplikatzen.

*** Sarrera-kopuru mugatua.

**** 6 sarrerako bonoa (Kontzertu Sinfoniko baterako edo gehiagorako) Prezio horiek baliozkoak dira, tipografia-arazoen eragindakoak direnean salbu. BEZ barne.

Abonu berrien salmenta

Denboraldi osorako abonauk

Uztailaren 6tik aurrera

Abonu laburrak

Uztailaren 15etik aurrera

Sarrerren salmenta

Irailaren 14tik aurrera izango dira salgai kontzertuetarako sarrera solteak

www.bilbaorkestra.eus
Taquillas Euskalduna Bilbao

Prezio Bereziak

Gazteentzako abonauk eta sarrerak

30 urtera arteko gazteek deskontu handiak dituzten prezio berezietan erosi ahal dituzte abonauk eta sarrerak (ikusi abonuen eta sarrerren taula).

Prezio bereziak langabe eta familia ugarientzat

Talde hauei dagokienez, prezio berezia sortu dugu sarrera solteetarako. Sarrera horiek %50eko deskontua izango dute euren prezio ofizialarekiko.

Taldeentzako deskontuak

Taldeentzako deskontu mota bi eskaintzen ditugu. Bata, %20koa, 7 eta 14 leku bitartean okupatzen dituzten taldeentzat; eta beste bat, %25koa, 15 lagun edo gehiagoz osatutako taldeentzat.

CrediBOS

Denboraldi honetan sarrerak aldeztu aurretik erosteko sistema hau berreskuratuko dugu, eta sarrerren prezio ofizialaren gaineko % 20ko deskontua eskainiko dugu. CrediBOSek musika klasikoaren zaletuari aukera ematen dio denboraldiak aurrera egin ahala entzun nahi dituen kontzertuak aukeratzeko, baita talde txikiei deskontu interesgarri bati heltzeko aukera eman ere.

Hastera doan denboraldirako, CrediBOSek sei sarrera izango ditu eta Kontzertu Sinfoniko baterako edo gehiagorako erabili ahal izango da.

Denboraldi berriari buruzko data nagusiak

HASIERA
2026ko irailak 1



AMAIERA
2027ko ekainak 11

Denboraldi sinfonikoa

17
Egitarau

34
Kontzertu

45
Bakarleri eta zuzendari

1
Proiekzio-kontzertua

1
Erabateko estreinaldia

1
Berreskuratutako obra

46
Musika-lanak

Ganberako denboraldia

10
Kontzertu

Zure orkestra gara

Kontzertinoa

Giulia Lucrezia Brinckmeier

Lehen biolinak

Charles Bingham (1)
David García (2)
Alfonso Aldeanueva
Claudia Bak
Nora Bolinaga
José Eduardo Canto
María Díaz-Caneja
Samuel García
Iñigo Grimal
Yulia Gudimova
Jon Irizar
Amaia Lizaso
Mariena
Lila Carolina Vivas

Bigarren biolinak

Laura Delgado (1)
Sergei Tiutiunik (1)
Andrea Cazzaniga (2)
Dan Caleb Alberganti
Lino Ayllón
Silvia Cantatore
Nicolás Fernández**
Irantzu Goñi
Fedor Larionov
Azer Lyutfaliev
Emil Lyutfaliev
Yolanda Pereg
Laura Sánchez
Pablo Val

Biolak

Cristina Blanco Amavisca (1)
Lander Echevarría (1)
Ane Aguirre
Asier Arabolaza
Isabel Aragón

(1) *Bakarlaria*

(2) *Bakarlari laguntzailea*

* *Behin-behineko adskripzioa*

** *Behin-behineko kontratazioa*

Administrazioko eta eszenatokiko langileak

Iñigo Alberdi Amasorrain (Zuzendari nagusia)
Borja Pujol (Zuzendari teknikoa)
Aitziber Azpiazu (Zuzendaritzako idazkaria)
Luis Javier Pérez (Komunikazio arduraduna)
M^a Jose Goiricelaya (Administrazio burua)
María Llamosas (Lege Teknikaria)
Elena Fernández (Administrari lag.)
Borja Tirado (Administrari lag.)
Pablo Suso (Produkzio eta Artxiboko burua)
Iñigo De Peque (Artxibaria)
Marcos Fuente (Erregidorea)
Ane Candina (Erregidorearen laguntzailea)

Juan Cuenca
Adriana Grigoras
Ignacio Marino
Leire Moreno

Biolontxeloak

Teresa Valente (1)
Diego Val (1)
Jaime Puerta Polo (2)
Ignacio Araque
Carolina Bartumeu
Agata Gawinska
Delia Sainz**
Juliet Somervail

Kontrabaxuak

Christoph Filler (1)
María Asua (1)
Gavin Cunningham (1)*
Gabriel León (2)*
Ernesto González

Flautak

Horacio Fdo. Parravicini (1)
Patricia Ruiz (1)
Pedro José Vela
Néstor Sutil (Piccolo)

Oboeak

Nicolas Carpentier (1)
Kyoko Watanabe (1)
Eduardo Benetó (2)
Xabier Lijó (Corno ingelesa)

Klarineteak

Carlos García (1)
Sandra Ibarretxe (1)
Antonio Prats
João Paiva
Luis Alberto Requejo (Clarinete baxua)

Fagotak

Santiago López (1)
Pedro Pardo (1)
Esther Gómez
Rubén Ferreira (Kontrafagota)

Tronpak

Luis Fernando Núñez (1)
Alberto Menéndez (1)
Estefanía Beceiro (1)*
William Simon Lewis (1)**
Fernando Casado (3. tronpa)**
Javier García
David Montalt

Tronpetak

Vicente Olmos (1)
Carlos Roda (1)
Esther López
Miguel Ángel Torres

Tronboiak

Alberto Urretxo (1)
Miguel Arbelaiz
José Benavent (Tronboi baxua)

Tuba

Vicente López (1)

Tinbal

Actea Jiménez (1)

Perkusioa

Vicente Zaragoza (1)
Joaquín Carrascosa (2)

Harpa

Marion Desjacques



Beste jarduera batzuk

2026 / 2027

EKAINA

FUN FARRE!	Bilboko Erruki Etxe Santua	ekainak 10
	Arrasateko Aita Menni ospitalea	ekainak 11
	Basurtuko ospitalea	ekainak 12
	Gurutzetako ospitalea	ekainak 16
	Urteurreneko Kontzertua Foru Jauregian	ekainak 27

ABUZTUA

	Kontzertuak Bizkaian zehar – Gorniz	abuztuak 6
	Donostiako Musika Hamabostaldia	abuztuak 19
	Santanderreko Nazioarteko Jaialdia	abuztuak 22
	Aste Nagusia	abuztuak 26

IRAILA

	Ongintzazko kontzertua Caritasen – Bilboko Karmengo eliza	irailak 3
	Kontzertuak Bizkaian zehar – Urduña	irailak 4
	Kontzertuak Bizkaian zehar – Getxoko Muxikebarri	irailak 5
	SIGUR RÓS + BOS – Euskalduna Bilbao	irailak 15
	Musikagileak – Campos antzokia	irailak 23

URRIA

	Ura Bere Bidean – BEC	urriak 22, 23 eta 24
--	-----------------------	----------------------

AZAROA

	ABAO denboraldia – Il Barbieri di Siviglia	azaroak 21, 24, 27 eta 30
--	--	---------------------------

ABENDUA

	Kontzertu parte-hartzailea La Caixa fundazioa – El Mesías	abenduak 11
--	---	-------------

URTARRILA

	ABAO denboraldia – Die Walküre	urtarrilak 23, 26, 29 eta otsailak 1
--	--------------------------------	--------------------------------------

MARTXOA

	MUSIKA-MÚSICA jaialdia	martxoak 5-7
--	------------------------	--------------

APIRILA

	Gernika Anabasa	
	100 urte Euskal Herriko Txistulari Elkarteak – Euskalduna Bilbao	apirilak 24

MAIATZA


	ABAO denboraldia – Manon Lescaut	maiatzak 22, 25, 28 eta 31
--	----------------------------------	----------------------------

EKAINA

	Arriaga antzokia – BEETHOVEN 1927	ekainak 18
--	-----------------------------------	------------



Laguntzaileak





Bilbao Orkestra
Sinfonikoa



Bizkaia



Bilbao

Euskalduna Bilbao - 944 035 205 - abonados@bilbaorquestra.eus - www.bilbaorquestra.eus

